AIARALDEA hemen

JANIRE ETXABE:
“Ahal bezain beste dantzatu eta sortu nahi dut, gorputza lehertu arte” 2-5 or.

GEHIGARRI BEREZIA
Auzo eta herrietako jaien faltan, ekintza ugarik osatuko dute uztaileko agenda



Zabaleko, eskola huts bat baino askoz gehiago

AIARA 8
Herriko emakumeen ekarpena idatzita geratu da Aiarako historian
Inma Roizek Aiarako 35 emakumeren testigantzak jaso ditu liburu batean

HEZKUNTZA 12-13
Unibertsitatera sartzeko ebaluazioaren bigarren deialdia ate joka
Eskualdeko ikasleek zalantzan jarri dute azterketaren baliogarritasuna

EKONOMIA 14-15
Fase berri baten atarian dago Tubacexeko greba
Epaiketak, akziodunen batzarrak eta Legebiltzarreko saioak agertoki berria zabaldu dute, 140 egunen ostean

KULTURA 16
Ugaitz Agirre Artziniegan oinarritutako ipuina ari da idazten
Udalbiltzak sustatutako egitasmoaren barruan egonaldia egiten ari da herrian

KIROLA 18
Uxue Mendia Alaveseko jokalaria da eta 1. mailara igotzea lortu dute aurten
Omenaldia egin zioten Laudioko udaletxean futbolari gazteari

elkarrizketa

“Dantza bertikala probatu nuen momentutik izan nuen argi bide horretan jarraitu nahi nuela”

JANIRE ETXABE (Arrankudiaga, 1979) DUELA BOST URTE SARTU ZEN DANTZA BERTIKALAREN MUNDUAN, *HARRIA HERRIA* FILMA GRABATZEKO. HAINBAT SARI JASO DITU IKUS-ENTZUNEZKO HORREK NAZIOARTEKO JAIALDIETAN, ETA OSTIRAL HONETAN ESTREINATUKO DUTE ZUZENEKO IKUSKIZUNA, DANTZA FORMAZIO BERRIAREKIN ETA OREKA TX TALDEAREKIN, BILBOKO KALEALDIAN.

Testua **Txabi Alvarado Bañares**
Argazkiak **Dimegaz elkartea**

Duela bost urte sartu zinen dantza bertikalaren munduan buru-belarri. Zerk bultzatu zintuen horretara?

Urtero jartzen dizkiot nire buruari erronka fisiko potoloak: maratoi erdia egitea, sei milako bat igotzea... 2016-2017. urteen artean, San Fauston eskalatzen geundela, lagunek galdetu zidaten ea zein zen urte hartan nire buruari jarriko nion erronka. Triatloi bat egitea nuen buruan, baina lagun guztiek proposatu zidaten gauza bera: dantza bertikalean buru-belarri sartzea. Denek ikusten zuten eskalatzean eta sokatik eskegitzean nuen zoriontasun aurpegia.

Banuen horri heltzeko asmoa, baina beti gutxietsi izan dut nire burua apur bat, ez nintzelako gai ikusten horrelako gauza bat aurrera ateratzeko, eta ez nuelako uste hori egiteko laguntza jaso edo dirua atera ahalko nukeenik. Baina adiskideek esan zidaten gai horretan murgildu eta triatloi, maratoi eta abarrak ahazteko.

Arte Ederrak ikasi nituen, eta eginak nituen performance batzuk Imanol Marrodan artistarekin, naturguneetan zintzilikatuta. Guzti hori borobiltzeko, nire pasioak zeintzuk diren helarazi nahi nion jendeari: harria eta soka. Horretan ematen dut denbora gehiena: dantzatzen edo eskalatzen.

Orduan, eskaladaren bidez iritsi zinen dantza bertikalera. Ez zenuen dantza formaziorik?

Ez, erabat autodidakta izan naiz. Ni eskalatzera joaten nintzen, nire mutil-laguna zenarekin. Soka oso toki zailetan jartzen zidan, eta ezin nuen bertan eskalatu. Nola pasatzen nuen orduan ondo? Ba saltoak eginez, dantzatzen... Nik formazioa dantza flamenkoan daukat. Urte asko igaro nituen Andoni Aresti dantza eskolan. Dantza bertikalean hasi nintzenean flamenkoa baliatu nahi nuen. Zapatakadak sartzen hasi nintzen, baina ikusi nuen ez zetorrela bat nire nortasunarekin.

Horregatik erabaki nuen estiloa aldatu eta bide autodidakta jarraitzea. Dani Tomasekin, Juan Leibarekin, Ludovica Zoerekin edota Magalie Lanriotekin aritu naiz. Uztailean astebeteko formazio bat egingo dut, eta asteburu batekoa, aldiz, abuztuan; biak ala biak kanpoan.

Helburu zehatz batekin ekin zenion dantza bertikala praktikatzeari: ikus-entzunezkoak ekoiztea.

Bai, nire fokua hor zegoen bakarrik. Ni horretatik nator, Arte Ederretatik eta performance mundutik. Aspalditik neukan Bilboko Mendi Film jaialdian pelikula bat aurkezteko asmoa. Bertara joateko ohitura nuen, eta ikusten nuen proiektatzen ziren lanak beti zirela munduko alpinista edo eskalatzaile onenei buruzkoak. Beti botatzen nituen faltan pertsona arrunton amets eta proiektuak hizpide zituzten lanak. Zergatik ez kontatu jendeari zer gustatzen zaidan, zeintzuk diren nire amets eta pasioak eta nola adierazten ditudan? Horregatik sartu nintzen buru-belarri *Harria Herria* filmaren grabaketan.

2019an, aldiz, jendaurreko emanaldiak eskaintzera pasa zinen, taldea osatuta. Salto handia izango zen.

Bai, itzela. Film laburra egitea hiru urteko lana izan da, lan oso gogorra. Baina zuzenekora salto egitea erabaki genuen. Oreka TXko txalapartariekin osatu genuen pelikula, eta aukera genuen eurekin eginikoa zuzenekora eramateko.

Erronka itzela izan zen, ez delako berdina 7-8 minutuko

dantza bat egitea grabaketa baterako edo emanaldi oso bat prestatzea. 70 minutuko zuzenekoa prestatzen ari gara orain Oreka TXkoekin, eta orotara 40 minutu inguru pasatzen ditugu dantzatzen. Imajinatu zenbateko esfortzua dakarren fisikoki zintzilikatuta entrenatzeak horrenbeste denbora igarotzeko eta, horrez gain, dantzatzea. Dantzari batzuk dantza klasiko eta garaikidetik datoz, eta hori lagungarria da. Baina ni beste diziplina batetik nator, dantza flamenkotik. Horregatik, lan bikoitza da nire kasuan.

Baina orain osatu duzuen taldean elkar osatzen zarete, ez?

Bai. Oso aberasgarria izaten ari da. Sara Mohino eta biok ikus-entzunezkoen mundutik gatoz. Alejandra Perezek pilatesa eta dantza garaikidea jorratu ditu. Del Perera, aldiz, dantza klasiko eta garaikidetik dator. Bakoitzak bere ekarpenak egiten ditu taldean eta oso gauza interesgarriak ateratzen dira.

Hiru urte behar izan dituzue *Harria Herria* film laburra egiteko. Zergatik luzatu ziren grabaketak horrenbeste?

Zirriborroa idatzi nuen lehenbizi, zer adierazi nahi nuen zehazteko. Lekua topatzea izan zen bigarren pausoa. Jabi Atutxak (Dimako lagun bat) lagundu ninduen horretan. Pareta probatu, dantzariak topatu, diru-laguntzak bilatu...

Finantzazioaren aldetik zorte handia izan nuen, jo nuen lehen atea Gautegiz Arteagako Udalarena izan zelako. Alkateak berehala eman zion baiezkoa proiektuari, eta bertako harrobian entseatzeko baimena eman zidan. Bere eskutik joan nintzen FMK Filmak ekoiztetxera. Asko gustatu zitzaien proiektua eta ekoiztetxeko Oier Plazarekin hasi nintzen lanean.

Diru-laguntzak lortzeari ekin nion orduan. Erakunde pribatuetara jo nuen, baina Bizkaiko Foru Aldundian jarri nuen fokua batez ere. Laguntza asko jaso nuen jotako ate guztietatik.

Zer kontatzen du pelikulak?

Filmaren hasierako helburua oso ezberdina zen. Sortzen gindoazen heinean, eta Oierren aholkuari jarraiki, pixka bat aldatzen joan zen proiektua. Nire hasierako asmoa zen emakumeak erakustea dantzatzen eta eskalatzen. Baina jakin izan genuen harrobia zabortegia izan zela bere garaian, eta zonaldeko eskalatzaile guztien artean garbiketa atondu zutela zonaldean. Emakumeek toki horretan izandako presentzia aldarrikatu nahi nuen, emakumeek harriarekin erlazionatzeko ditugun modu ezberdinak erakutsiz. Harri zulatzaileak ere sartu nahi nituen, baina ekonomikoki ez zen bideragarria. Funtsean, kontatu nahi nuen nola ematen zaion berriz bizitza, artearen bidez, gizakiak suntsitutako gune bati.

Dantzatik baino, badirudi performancetik gertuago dagoela proiektu hori.

Batzuek esan dute bideoklip baten antza duela. Beste batzuei, aldiz, arte-adierazpen bat iruditu zaie. Nik ez dut klasifikatzen. Nire sentimendu bat da, emakumea harriarekin nola erlazionatzen den erakusteko helburuarekin. Egiten ditudan ekimenak esku-hartze artistikoak dira niretzat.

“Musika erabat lotuta dago planteatzen dugun gaira, are gehiago Oreka TXrekin batera aritzen garenean”

Badituzu ikus-entzunezko gehiago labean.

Bai. Horietako bat da *Haize lerroa* ikus-entzunezkoa. Imanol Marrodanen artelan batean oinarritua dago. Begiradarekin eginiko aire lerro bat da bere lana, Urkiolako bailaran suertatzen dena. *Anboto* liburuan dago erregistratuta.

2017ko Errege Egunean Anbotora igo nintzen lagun batekin, goizeko lauretan, lo egin ezinik genbiltzalako. Egunsentian iritsi ginen tontorrera eta liburu bat topatu genuen lur-azpian, tamaina handikoa. Anboto liburua zen. Imanolek aurreko gauean lurperatu zuen, tontorrera iristen zen lehengo pertsonak opari moduan jaso zezan. Niri horrelako gauzak asko gustatzen zaizkit, oso performance-zalea naizelako. Argitaletxearen bidez jarri nintzen berarekin kontaktuan, eta horrela hasi ginen elkarrekin lan egiten.

Ni askotan igotzen naiz Anbotora, eta denbora asko igarotzen dut espazioen kontenplazioan. Gizakiak paisaia aldatzen du bere aztarnarekin, baina gai da baita ere bere emozioekin, bizipenekin, kontenplazio hutsarekin ingurua eraldatzeko. Mendira igotzean bizi duzunaren eta duzun ikuspuntuaren arabera, zure begirada bata edo bestea izango da.

elkarrizketa

Imanolentzako opari bat da ikus-entzunezkoa, oso lagun onak bilakatu baitira bera eta bere familia. Euskal mitologia ere asko gustatzen zait, eta Anboton Mariren istorioa dago.

Horregatik, proiektuan murgildu nintzen, dantza bertikalarekin ere. Baina pila bat kostatzen ari zaigu aurrera ateratzea. Pare bat grabaketa egun izan ditugu. Nik guztira lau egitea nuen buruan, baina gehiago izan beharko dira. Dirua izaten ari da oztopo handiena. Proiektuak bi diru-laguntza jaso ditu dagoeneko, horietako bat Bizkaiko Foru Aldundiarena. Hala ere, ez gara gastuak estaltzera heltzen. Azken hilabeteak eman ditut diru-laguntzen bilaketan.

Hori da dudan proiektuetako bat. Beste bat osatzen ari naiz Aitor Etxebarria musikari gernikarrarekin eta bi dantzarirekin batera. Lanean hasi gara dagoeneko. Momentuz ezin ditut euren izenak esan, baina asko miresten dudan euskal dantzari bat dago tartean. Berarekin lan egitea sekulako esperientzia izango da niretzat.

Urrian grabatuko dugu ikus-entzunezko hori. Datak eta entseguak zehaztuta daude dagoeneko. Oso laburra izango da.

“Ahal bezain beste dantzatu eta sortu nahi dut, gorputza lehertu arte”

Zuzendari ardurak dituzu proiektu horietan edo dantzatzera mugatzen zara?

Gainetik kendu nahi dudan ardura bat da zuzendariarena. *Harria Herria* proiektuan oso gogorra suertatu zitzaidan dena uztartzea: zuzendari lanak, produkzioa, dantza... Oier eta bion artean koordinatu genuen dena. Aurrerantzean gustatuko litzaidake ikus-entzunezkoaren zuzendaritzaren lana taldeka egitea, oso gogorra suertatzen zaidalako ardura hori nik bakarrik betetzea. Baditut pertsona batzuk buruan horretarako, ea animatzen diren.

2019 amaieran ekin zenioten zuzeneko emanaldiak prestatzeari, eta 2020an iritsi zen koronabirusaren pandemia. Zer nolako eragina izan du zuen jardunean?

Lehenengo emanaldia Menorcan egin genuen, Oreka TXrkin batera. Beste dantzari batzuekin nengoen orduan, eta banaketa bat egon zen. Krisi une gogorra izan zen hori niretzako, eta zuzenekoa albo batera uztea erabaki nuen, ikus-entzunezkoen esparruan zentratzeko. Baina hilabeteak aurrera joan ahala geroz eta gehiago botatzen nuen faltan entseatzea, sortzea edota partekatzea. Horrez gain, deiak jasotzen nituen, proiektuari berriz heltzeko eskatzen zidan jendearenak, eta zuzeneko proiektura itzultzea erabaki nuen azkenean. Alejandra ezagutzen nuen, elkarrekin egonak ginelako *Haize lerroa* filma laburraren grabaketan, eta berari proposatu nion proiektura batzea.

Bion artean heldu genion berriz ikuskizuna prestatzeari, 2020ko Gabonetan.

Hilabete biziak izan dira aurtengoak, beraz.

Oso. Atsedenik hartu gabe aritu gara, eta oso nekatuta amaitu dugu fisikoki zein psikologikoki. Hiru emanaldi ditugu lotuta. Baina gero, beste aldetik, Oreka TXko Harkaitzek beste proiektu batera batzeko gonbita luzatu zidan, *Dendu* izenekoa. Elkarrekin ari gara kudeatzen egitasmo horren zuzendaritza artistikoa. Dantza bertikal teknika ezberdinak sartu nahi genituen bertan. Probak egin nituen soka elastikoekin edo Errusiatik ekarritako balazta batekin, eta Harkaitzek ere bestelako elementu batzuk proposatu zizkidan.

Proiektu hori garatzeko dantzari gehiago behar ziren. Topaketa informal bat egin nuen ezagutzen nituen hainbatekin, eta azkenean Kataluniako bati eta Madrileko beste bati proposatu nien proiektura batzea.

Zertan ezberdintzen da ikus-entzunezkoetan ikusten den dantzan zuzenean ikusten denarekiko?

Nire helburua izango litzateke naturguneetan egiten ditugun emanaldiak hirira mugitu ahal izatea, baina oso zaila da naturan sentitzen dituzun gauzak hirira eramatea. Naturguneko hormak irregularrak dira, eta horietara moldatu behar izaten dugu. Hiriko paretak eta giroa ez dira berdinak, hirian beste gauza bat transmitituko genieke ikusleei. *Dendu* proiektuan hiru elementuren arteko harremana islatzen da: harria, egurra eta metala. Mikel Lertxundiren Orekaren bila lanean oinarritu gara. Beti gustatzen zait euskal artisten artelanetan oinarritzea sorkuntzarako.

Horrez gain, *Haize lerroa* ikus-entzunezkoarekin batera, beste zuzeneko bat sortzen ari gara; Patxi Araujo artista nafarraren mapping proiekzioa osatzen ari gara. Naturguneko espazioak sartuko ditugu bertan, eta horrek ikuslea lagunduko du bisualki espazioan kokatzen.

Musikak ere badu garrantzia sorkuntzan, ez?

Bai. Musika erabat lotuta dago planteatzen dugun gaiarekin, are gehiago Oreka TXekin batera aritzen garenean. Talde horren musika naturako elementuetatik sortze da. Harrizko txalapartak erabiltzen dituzten, banbu kanaberak, egurra... euren musikak antzinako erritualetara garamatza. Badituzte erritual kutsu handia duten abestiak, eta gu ere saiatzen gara hori paretan islatzen.

Aipatu duzu oso gogorra dela dantza bertikalean aritzea, fisikoki zein psikologikoki. Merezi du ahaleginak?

Erabat (barreak). Ezin naiz egon zintzilikatuta egon gabe. Dantza bertikala probatu nuen momentutik izan nuen

elkarrizketa

argi bide horretan jarraitu nahi nuela. Pena ematen dit bide hau askoz lehenago, gazteagoa nintzenean, abiatu ez izanak. Gauza batzuetarako berandu nabil dagoeneko.

Alde fisikotik diozu?

Dena, orokorrean. Gauza bat gaztea zarenean egiten hasten bazara aukera duzu asko trebatzeko. Gorputzak ere beste modu batean funtzionatzen du orain. Dudan adinarekin, fisioterapeutarengana joan behar izaten naiz hamabostean behin, grabitatearen aurka aritzen garelako.

Hasieran ordu pilo igaro behar izan nituen sokatik zintzilik buruan nituen helburuetara heltzeko. Harrobi ondora joan nintzen bizitzera, pareta gertu izateko eta ordu gehiago sartzeko. Zaila da baita ere entseatzeko toki bat topatzea, leku bakarra dago, eta oztopo asko izaten ditugu. Orain dela hilabete batzuk lesio bat izan nuen eta sendatu gabe jarraitu behar izan nuen entrenatzen. Egunean bitan joan behar nintzen fisioterapeutatara, astelehenik ostiralera, entseguak jasan ahal izateko. Nire buruari galdetu izan diot ea zertan nabilen, baina sentitzen dut horretan jarri behar ditudala energiak.

Nire hasierako helburua *Harria Herria* film laburra egitera mugatzea zen. Ondoren etorri zen zuzenekoak egiteko aukera. Ahal bezain beste dantzatu eta sortu nahi dut, gorputza lehertu arte; eta gorputza lehertzen denean beste pertsona batzuei lagundu nahi diet euren proiektuak aurrera ateratzen. Ideia asko ditut buruan. COVID-19aren pandemiak balio izan dit gauza berriak idazteko, eta horietako batzuk abian daude dagoeneko.

Beraz, buruan duzu noizbait dantzatzeari utzi egin beharko diozula, ez?

Bai. Egia da beste talde batzuetan badaudela 50 urte urteko emakumeak, dantza bertikala egiten jarraitzen dutenak. Baina nik behintzat ez dakit jarraitu ahalko dudan, ez behintzat orain arteko erritmoan. Astero aritzen naiz, gorputzak ez du atsedenik hartzen, eta badakit horrek iraungitze-data duela.

Pandemia gauza berriak idazteko baliatu zenuen.

Balio izan zidan ikusteko zein puntutara arte gutxiesten nuen nire burua. Idazteak eta proiektuentzako ideiak partekatzeak ahaldundu egin ninduen. Horregatik izan da aberasgarria. Tarte bat atera nuen nire buruarekin geldi egoteko, gauza berriak planteatzeko eta nire bizitzarekin benetan zer egin nahi dudan hausnartzeko. Hor konturatu nintzen zer zen zoriontsu egiten eta asetzen ninduena. Gogorra eta aberasgarria izan da aldi berean.

Orain egoera hobetzen ari dela dirudi, kultur emanaldiei begira.

Bai. Gertatzen dena da iazko jaialdiak bertan behera geratu zirela, eta ordurako programatutako ikuskizunak aurten egingo direla. Ez dituzte programazio berriak onartzen.

Hiru emanaldi lotu ditugu: bata ostiral honetan, uztailak 2, Bilboko Kalealdian. Bestea Lantaronen egingo dugu eta hirugarrena Igorren. Abuztuan ez dugu emanaldirik momentuz. Gauzak hala, entseatzeko baliatuko dugu hilabete hori, eta oporrak hartzen saiatuko gara.

Harria Herria filmaren bira aurten amaituko dugu. Washingtonen proiektatu berri da, Cascadian, emakumeen nazioarteko film jaialdian. Beste sei jaialditara ere aurkeztu dugu, baina aurten amaitu nahi dugu birarekin. Hiru proiektutan zentratu nahi dut: *Dendu* eta *Harria Herria* ikuskizunetan eta *Haize Lerroa* film laburrean.

Datorren urterako jaialdiak lotzen saiatuko gara, bira egin ahal izateko.

Datorren urtea ere bizia izango dela aurreikusten duzu, orduan.

Hori espero dut, ahalik eta gehien antzeztea. Hori da nire ilusioa. Ea dena ondo ateratzen den.

herriz herri

Amurrio

Pandemia egoerak guztiz baldintzatuta, Refor erretegian ospatu zuten 2021eko Txakolin Eguna, formatu txikian. Ekitaldian Angelines Villate izan zuten gogoan, eta Manu Garcia Sanchez izendatu dute aurtengo txakolinaren enbaxadore.

Iazko uztaren emaitza dastatu dute COVID-19ak zeharo baldintzatutako Txakolin Egunean

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Bueltan da Txakolin Eguna, formatu txikiagoan bada ere, pandemiak hala behartuta. Ekainaren 24an ekitaldia egin zuten Amurrioko Refor erretegian sektoreko kideekin eta Eusko Jaurlaritzako, Arabako Foru Aldundiko eta Amurrioko Udaleko ordezkariekin, 2020ko uztatik ateratako ardoak dastatzeko.

2019ko ekainaren 2an ospatu zen azkeneko aldiz Amurrioko Txakolin Eguna, eta antolatzaileek "oso hunkigarritzat" jo zuten berriro egiteko aukeraizatea. Iazkoa osourte gogorra izan zela nabarmendu zuen Mariano Alavak, Arabako Txakolina jatorri-deituraren presidenteak: "Pandemiak eragindako egoera korapilatsuaz gain, Angelines Villate Delikako ekoizleak bizia galdu zuen upategian jazotako istripu baten ondorioz".

Hain zuzen ere, Angelines Villate txakolingilea omendu zuten ekitaldian. Arabako Txakolinaren figura garrantzitsutzat jo zuten Villate, eta datozen belaunaldientzako eredu izango dela ziurtatu dute. Arabako Txakolinarekin lotura handia zuen pertsona izateaz gain, Delikako administrazio batzarreko kide eta herriko bizilagun aktiboa izan zen Villate. Angelinesen senideek jaso zuten oroigarria. Txakolingilearen heriotzak ez du upategia gelditu. Izan ere, honen ondorengoek hartu dute lekukoa.

Amurrioko El Refor erretegian ospatu zuten 2021eko Txakolin Eguna. **Aiaraldea.eus**

2021eko enbaxadorea

Arabako Txakolingileek Manu Garcia Sanchez izendatu zuten aurtengo txakolinaren enbaxadore. Alaves futbol taldeko jokalariak Arabako jatorri-deituraren ezaugarri berdinak biltzen dituela nabarmendu zuten: konpromisoa, profesionaltasuna eta sakrifiziorako gaitasuna. Futbolariak berak jaso zuen oroigarria Amurrioko ekitaldian.

2020ko uzta

Iazko uztan jasotako mahatsen ardoa dastatu dute gaurko ekitaldian. Komertzializazioaren beherakadaz gain, meteorologiari ere aurre egin behar izan zioten 2020an Aiaraldeko mahastiek, udaberria oso euritsua izan baitzen, eta aurreikuspenak ez ziren guztiz onak. Uda eta udazkena, ordea, apartekoak izan ziren eta kalitate handiko txakolina ekoiztea lortu dute azkenean.

Nazioartean asko ari da saltzen Arabako Txakolina, hala nola Amerikako Estatu Batuetan, Kanadan eta Japonian

Guztira 7.500 botila ekoiztu dira jatorri-deiturako zortzi upategietan. Adituek nabarmendu dute eskualdeko zapore eta nortasuna ondo islatzen duen txakolina dela aurtengoa, eta hiru eragile nagusi azpimarratu dituzte: Aiaraldeko klima, lurzorua eta eskulana. Baikorrak dira eskualdeko txakolingileak, eta oso pozik daude produktua azken urteetan izaten ari den harrera onarekin. Inguruan soilik ez, nazioartean ere asko ari da merkaturatzen Arabako Txakolina, hala nola Amerikako Estatu Batuetan, Kanadan eta Japonian.

Dagoeneko hasi dira 2022ko Txakolin Egunean pentsatzen. Aurtengo uztaren emaitzak frogatuko dituzte egun horretan, eta hori Amurrioko Parkean egitea espero dute, ohikoan bezala. Nahi hori bera adierazi zuen Txerra Molinuevo alkateak ekainaren 24ko ekitaldian.

herriz herri

Laudio

Kultur-sorkuntza azoka egingo dute, Laudion kulturak “alerta gorrian” jarraitzen duela salatzeko

Maiatzean eginiko ekimenari jarraipena emango dio azokak. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Maiatzaren 15ean ekimen bateratua egin zuten Laudioko Musika Bandak, Orbeko Etxeak, Gaztetxeak, Sorginlarrenek, Kirikiñok eta skate taldeak Lamuza parkean, Laudioko kultura “alerta gorrian” dagoela salatzeko. Hainbat jarduera antolatu zituzten parkean barrena, herriko kultura bizitza erabat murriztu dela salatzeko. Ekitaldiak antolatzeko udalak jarritako trabak jarri zituzten mahai gainean, besteak beste.

Uztailaren 11n egingo dute ekimena, Aldai plazan. Kultura sortzaileekin harremanak jostea izango da ekimenaren xede nagusia

Hilabete baino gehiago igaro da ekimen sinboliko horretatik, baina antolatzaileak ez dira geldirik egon. Elkarren artean biltzen jarraitu dute, parkeko egitasmoan plazaratutako aldarriak zabaltzen jarraitzeko helburuarekin. Horri begira egingo dute bigarren ekintza publikoa iragarri dute jadanik: Kultur-sorkuntza azoka. Uztailaren 11n egingo dute, 10:30etik 13:30ra, Aldai plazan. Bertan parte hartzeko beharrezkoa izango da aurretik izena ematea, izenemateakirikino@gmail.com helbidera mezua bidalita edo 688 72 66 65 telefonora deituta.

BABESTUTAKO EDUKIA

Etxaurre higiezin agentzia: belaunaldiz belaunaldi igaro den ofizioaren lekukoa

Zumalakarregi etorbidean du Etxaurre higiezin-agentziak bulegoa kokatuta. Egia anai arrebek abiatu zuten negozia duela 20 urte, baina familia aspalditik egon da etxebizitzen promozio, eraikuntza eta salmentara lotua.

Zumalakarregi etorbidearen historiaren parte bat ere bada Egia sendiarena, hain zuzen ere. Etxaurre agentziako fundatzaileen aita, Carlos Egia, Laudioko kale nagusiari bidea zabalduko zion etxebizitzen eraikuntzan aritu zen burubelarri. 1970eko hamarkadan Jose Mardones eta Zumalakarregi kalea izango zen estrada estuaren arteko lursail bat erosi zuten. Terreno malkartsua zen eta urtebete egon ziren mendia dinamitarekin erauzten, gerora etorbideko 48. eta 50. zenbakietan dauden dorreak eraikitzeko. Garai hartan Laudioko eta Amurrioko beste hainbat etxebizitza altxatu zituzten, Alberto Aceroko merkatu plaza, esaterako. Ofizioa belaunaldiz belaunaldi egon da familian presente. Carlos Egia, bere aita Gerardo eta neba Ermenegildorekin batera, baserriak konpontzen hasi zen 1950eko hamarkadan, 16 urte zituela: teilatuetatik hasi eta barrualdea atontzera arte. Kexaako komentua ere Egiatarren eskuekin konpondua izan zen, baita Aretako Eliza ere.

Egia familiak hainbat etxebizitza eraiki zituen Laudioko Zumalakarregi etorbidean 1970eko hamarkadan

Lekukoa hartuta

Zumalakarregiko merkatal zentroa izan zen Egiatarrek eraikitako azken proiektuetako bat. Etxaurre agentzia hor bertan irekitzea erabaki zuten. Eraikuntzan baino, etxebizitzen salmentan espezializatu dira belaunaldi berriak, baina familiaren izaera eraikitzailearen lekukoari sendo heldu diote.

Carlos Egia aita eta Carlos Egia semea Etxaurre agentziaren aurrean. **Aiaraldea.eus**

etxaurre
higiezinen agentzia
20 urte zurekin

94 672 85 50
Zumalakarregi 38, LAUDIO
www.etxaurre.com

herriz herri

Aiaraldea

Aiaraldeko Gida Komertziala: 1.900 establezimendu baino gehiago, klik batera

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aiaraldea.eus webgunean kontsultatu daiteke gida. **Aiaraldea.eus**

Eskualdeko komertzioen mapa osatuena osatu du Aiaraldea Komunikabideak, euskara hutsez: Aiaraldeko Gida Komertziala. Aiaraldea.eus/gida helbidean topatu daiteke, eta eskualdeko establezimenduen 1.900 kontaktu eguneratu baino gehiago barnebiltzen ditu.

Eskualdeko gida digital bakarra da, ez baitago herri guztietako komertzioak barnebiltzen dituen beste gidarik. Digitala izanda, establezimenduak modu errazean topatzeko aukera ematen du gidak, herrika edota gremioka sailkatuta baitaude.

Kontaktuak baino gehiago

Horrez gain, kontaktu hutsak baino gehiago topatu daitezke gidan. Merkatari fitxak ere badaude, merkatariek osatu ditzaketenak, euren negozioaren edota produktuen informazioarekin. Modu horretan, irakurleek aukera dute unean uneko eskaintzen eta zerbitzuen berri jasotzeko. Gauzak hala, paperezko telefono gidekiko alternatiba egokia da Aiaraldeko Gida Komertziala, eskualdeko establezimendu guztien informazioa klik batera izatea ahalbidetzen duelako.

Aiaraldeko udako argazki lehiaketa, abian

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Iazko lehiaketan saritutako argazkietako bat. **Andrea Herrera Angulo**

Urtero bezala, Udako Argazki Lehiaketa abiatu du Aiaraldea Komunikabideak. Bi modu egongo dira parte hartzeko: Argazkiak zuzenean Aiaraldea.eus web gunera igota (www.labur.eus/udakoargazkilehiaketa helbidean) edo komunikabideko kideei bidalita, erredakzioa@aiaraldea.eus helbidearen edo 688 84 81 52 telefonoaren bidez (Telegram edo Whatsapp bidez). Beharrezkoa izango da egilearen izen abizenak eta irudiaren izenburua eta kategoria aipatzea.

Kategoria eta sariak

Hiru kategoria egongo dira. 'Mundua' kategorian eskualdetik kanpo ateratako argazkiak bilduko dira. 'Aiaraldea' kategorian, aldiz, tokiko irudiak aurkeztu ahalko dira. Hirugarren kategoria taldekako argazkietara bideratua egongo da.

Sari bat banatuko da kategoria bakoitzeko. 'Mundua' saileko saria bi lagunentzako gaua eta gosaria izango da Gorbeiako aterpean. Aiaraldeko argazki onenaren egileak, aldiz, Faktoriako kontzertuetarako bi sarrera bikoitz eskuratuko ditu. Talde argazki bozkatuenak, aldiz, Ekonomatuko produktuekin osatutako saskia jasoko du opari.

Bozketa fasea

Aiaraldea.eus webguneko erabiltzaileek erabakiko dituzte lehiaketako irabazleak. Horretarako, argazkien bozketa fasea irekiko da irailaren 21etik 30era. Kategoria bakoitzean boto gehien jasotzen dituen irudiak eskuratuko du saria. Urriaren 1ean jakinaraziko dira saridunak.

Aiara

Emakumeak izan ziren protagonistak euren tokia bilatzeko Aiarako historian

Liburuaren aurkezpena Luiaondon. **Aiarako Udala**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Gorabehera ugariren ostean, *Aiarakoemakumeak;memoria, aztarnak eta errealitateak* liburua aurkeztu zuten azkenean igandean -ekainak 27- goizeko 10:00etan abiatu zuten ekitaldian. Hasierako asmoa Etxaurrengo baselizan egitea bazen ere, eguraldiaren ondorioz Luiaondon gauzatu zuten ekitaldia.

Udalerriko emakumeen bizipenak jasotzen dituen testuaren aurkezpena bertsolariekin hasi zen, baina berehala hartu zuten hitza liburuaren protagonistak. Bai Inma Roiz idazleak zein euren lekukotza eman duten emakumezko askok partekatu zituzten euren esperientziak: emakume elkarteko kideak, talde feministetako ekintzaileak, Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartea, Administrazio Batzarreko ordezkariak... guztiek azaldu zuten euren ibilbidea eta borroka.

Liburuaren sustatzaileek azpimarratu nahi izan dute testua sortzeko prozesua ere balioan jarri behar dela.

Udalerriko emakumeen sare morea osatzeko urrats bat gehiago izan da eta herri eta esparru ezberdinetatik jarri dira harremanetan emakumeak.

Zentzu horretan, Aiarako Udalak goraipatu du 35 lagunek parte hartu dutela proiektuan eta norbanakoen ahotsetatik gain, ahalegin kolektiboa mahaigaineratu beharra dagoela.

Emakumeen Etxea kalera

Aurkezpenerako elkarrizketa eredua baliatu zuten. Aiarako Udaleko Berdintasun zinegotziak eta Luiaondoko Administrazio Batzarreko kideek aurkezpena egin ostean, liburuan agertzen diren hainbat emakume mintzatu ziren.

Horretarako Emakumeen Etxeko sofa erabili zuten. Izan ere, udalak aitortu nahi izan du toki horrek duen garrantzia udalerrian emakumezkoak saretzeko eta indarrak metatzeko.

Ez zen bide beretik egikaritutako ekintza sinboliko bakarra, Aiarako mapa osatu baitzuten Administrazio Batzar guztiekin.

Protagonisten zuzeneko lekukotzak entzun ostean, argazki kolektiboa egiteari ekin zioten bertaratutakoek.

herriz herri

Artziniega

TERESA LAFRAGUA

SANTXOTENA MUSEOA

Santxotena Museoa Aiaraldeko ponentzia soziokonomikoan

Legebiltzarrak Santxotena Museoari eskatu zion Aiaraldea suspertzeko ponentzian parte hartzeko. Hala, ponentziara joan ginen, Teresa Lafragua eta Xabier Santxotena.

Bozate-Baztan-Nafarroako bi museoekin eta Aiaraldeko Santxotena museoarekin egin genuen museo-ibilbidea azaldu genuen bertan.

Eskualdeak hedapen turistiko handia behar du, gure ingurunea eta baliabide jasangarriak sustatu eta turismoari balioa emateko. Kuadrilla osatzen duten herrien biziberritze eta sustapen turistiko handia behar du, turismoa garatzeko sustapen-ekintzak eginez: Helmuga turistikoen eskaintza dibertsifikatzea, enplegua sortzen laguntzeko, jasangarritasuna hobetzeko eta turismo-sistemaren kapital naturala kudeatzeko; helmugaren lehiakortasunean eragina izango duten inbertsio eraldatzaileak egitea. Xedeari buruzko jarduera sortzea, ingurumen, lurralde, gizarte eta ekonomia jasangarriko eredu batean oinarrituta.

Gure eskualdeak potentzial turistiko garrantzitsua du, kultura, ondare, arte edo turismo baliabideen eskaintza aberatsean oinarrituta, edo turismo esperientzia aberasteko eta turismo-eredu iraunkorra sendotzeko gaitasuna duten produktuekin. Lurralde kohesio handiagoa lortzea, ez bakarrik lurralde bakoitzaren eskaintza lotuz, baizik eta eskualde desberdinetako helmugen arteko loturak sortuz.

Horien bidez, landa turismoko eskaintzaren arrakasta bermatuko da, eta Aiarako haranaren eragin ekonomiko soziala eta susperraldia sortu.

Santxotena Museotik hiru proiektu aurkeztu ziren, pizgarri turistiko handia izango liratekeenak eta eskualde osoan eragina izango luketenak.

Gainera, hamaika proposamen helarazi genizkien, Aiaraldea osora bideratuta. Planteatu genien Artziniegako dorrean dagoen hotelak urte asko daramatzala itxita, eta berebiziko garrantzia duela berriz funtzionamenduan jartzeak. Era berean, helarazi genien garrantzitsua eta beharrezkoa dela Barrataguren auzoraino espaloi bat egitea. Oso arriskutsua da eta ez du bazterbiderik ere, Bilbotik datorren errepide orokorra baita.

Objekiboak izan ginen; gure eskualdeko beharren identifikazioan ditugun indarguneak aipatu genituen, baina baita ahuleziak ere. Espero dugu jarduera garrantzitsuak egitea, gure eskualdea pizgarri ekonomiko, turistiko eta kulturala izan dadin.

Urduña

Emakumezkoek hartuko dute oholtza NeskArtfest jaialdian, uztailaren 2an eta 3an

NeskArtFest jaialdiaren aurkezpenaren irudia. **Urduñako Udala**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Ekainaren 15ean aurkeztu zuten Urduñan NeskArtFest jaialdia Itziar Biguri Ugarte alkateak, Soledad Lezameta Astrain Berdintasun zinegotziak, Carmen Olabuenaga Vergara Udaleko Kultura Arloko teknikariak eta David Baskaran Kuluxka konpainiako ordezkariak. Egitasmoaren helburua da emakumezkoek sortutako lanak ikustaraztea eta horretarako ari dira elkarlanean udala eta Kuluxka konpainia.

NeskArtFestek bi egunez eramango ditu ekintzak Urduñara, uztailaren 2an eta 3an:

Uztailaren 2an: "Berdintasuna eszenan: gogoetak Euskadiko arte eszenikoetan genero-berdintasuna lortzeko" foroarekin hasiko da jaialdia 19:30etik 20:30ak arte Alondegian. Horren ostean, *Lo que me sale de la concha* antzezlana eskainiko du Cristina Calvok, Andra Mari Plazan, 21:00etatik 21:45ak arte.

Uztailaren 3an, 10:30ean hasiko da jardunaldia. Cristina Arias aktoreak haurrentzako tailerrak eskainiko ditu Andra Mari Plazan 10:30etik 12:30ak arte. Jarraian, Tepsis Teatro konpainiaren *Despierta! Retablos de la vergüenza* lanaz gozatzeko aukera izango dute urduñarrek zezen-plazan, 13:00etatik 14:00etara bitartean.

Arratsaldeko egitarauari dagokionez, *Loscaminosdelavida* antzeztuko du Colectivo Artea taldeak, 17:00etatik 18:00ak arte, zezen-plazan. Ondoren, Cia Ido Lo Ca konpainiaren txanda izango da, Andra Mari Plazan 18:30etik 19:30era, ¡Qué circo de mujer! obrarekin.

Avril Teatro Breve konpainiaren *Avril* izeneko lanak girotuko du gauaren hasiera, 20:00etatik 20:30era zezen-plazan. Amaitzeko, Las Lentejas taldearen kontzertuak amaiera emango dio egitarauari, 21:00etatik 21:45ak arte, zezen-plazan ere bai.

Pandemia dela eta, aldez aurretik izena eman beharko da jaialdian parte hartzeko. Hilaren 21ean eta 22an online galdetegiaren bitartez urduñarren txanda izango da eta hilaren 23an, Alondegian aurrez aurre, Urduñako eta Arrastariako bizilagunentzako eguna.

Sarrera batzuk soberan geratuko balira, beste udalerrietako herritarren eskura jarriko lirateke. Sarrerak jasotzeko eta ordaintzeko egunak, bestalde, ekainaren 28a eta 29a izango dira.

arrate
gestoria aholkularitza aseguruak
20 urte
baino gehiagoko
esperientzia
Iturralde kalea 2, AMURRIO
945 89 02 06
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com

erreportajea

Helduentzako Ikastetxe Publikoak eta Zabaleko Eskola Publikoak elkarlanari ekin diote ikasturte honetan, guraso talde batek, gehienbat amek, gaztelania ikas dezaten.

Zabaleko, eskola baino gehiago, kultuartekotasun eta ahalduntze puntua

Zabaleko ikastetxeko gaztelania klaseetako ikasleak. **Aiaraldea.eus**

Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

Amaiera gorabeheratsua izan duen ikasturte honek ezuste positiboak ere utzi ditu Zabaleko Eskola Publikoan, adingabeak ez ezik, helduak ere batu baitira ikastetxera.

Alegia, guraso talde batek gela hartu du ikasturte honetan lau egunez astero, 15:00etatik 16:30ak arte, gaztelania ikasteko. Helduntzako Ikastetxe Publikoaren eta Zabaleko Eskola Publikoaren elkarlanaren ondorioa izan da egitasmoa.

Ikasleak batzeko Zabalekoko zuzendariak proposatu zien batzuei, eta ezagunen artean zabaldu zuten iniziatiba.

Berez, emakumezkoak ziren ikasle guztiak, salbu gizonezko bat.

Herri ezberdinak

Euren izenek adierazten duten moduan, (Fatimatou Berrich, Najat Boucetta, Aichattou Cmicha, Zahra Jabar, Milica Stoicu, Mina Tachellait, Melha Mekkioui...) ikasleak jatorri ezberdinekoak izan dira; Maroko, Aljeria edo Errumaniakoa, eta oso ondo moldatu dira elkarrekin eta, bereziki, ahozko gaitasunak landu dituzte.

Eurentzat garrantzitsua da gaztelania ikastea, gutxieneko komunikazioa izateko herrian. "Asko hobetu dugu", azaldu du Fatimak. "Orain errazagoa zaigu kalera ateratzea eta hitz egiteko saiakera egitea", erantsi du Melhak.

Irakasleak gehitu du emakumezkoek serio hartu dutela erronka ez bakarrik eurengatik, baizik eta euren seme-alabak lagundu nahi dituztelako.

Gaztelania hutsaz gain, teknologia berriak ere jorratu dituzte eta ohiko klase teorikoak eman dituzte, jakina.

Eskulanak, ikasteko bidea

Ikasteko eta euren gaitasunak lantzeko, emakume taldeak eredu ezberdinak eta berriak probatu zituen. Esaterako, eskulanen bidez mintzatzeko trebezia garatu zuten. "Milikak loreontziak nola egiten diren erakutsi zigun" adierazi du Fatimak.

Hortik beste ideia sortu zen; oparia egitea ikasle eta irakasle orori. Gauzak horrela, 125 koaderno prestatu zituzten. "Adin bakoitzak gustu ezberdinak ditu, hortaz, ez ziren guztiak berdinak" aipatu du Nerek. Horrez gain, azken orduko aldarrikapena gehitu zuten koaderno guztietan. "Zabaleko ixteko arriskuan dagoenez, Zabaleko Bizirik! plataformaren logoa itsatsi genuen ale guztietan. Zabaleko ikastetxe txikia da eta guretzat familia baten modukoa" azaldu du Melhak. Ikasturte amaieran, jairik ez zenez egon, gutxienez ekitaldia antolatu zuten koadernoak oparitzeko eta jendaurrean hartu zuten hitza.

Ahalduntze eskola

Zabaleko izan da emakume hauen topagunea zaintza lanak eta ikasketak uztartzeko. "Ordu berean sartzen gara umeak eta amak eta horrela bateragarria da ikastea" nabarmendu du Melhak. Gehienek aurretik ikasi zuten Helduentzako Ikastetxean, baina gertu izateak erraztu die lana. Horregatik, hurrengo ikasturtean jarraitzeaz gain, pertsona gehiago batu nahi dituzte proiektura. Askok uste dute aurrera eginez gero, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza gainditzea izango litzatekeela bere helburua etorkizunean. Kulturartekotasunerako eremu bikaina bilakatu da ere gela. Nere Nuñez irakasleak haka aitortu du: "Eurekin egoteak mundu berria ireki dit. Jende izugarria ezagutu dut, aurreiritziak apurtzen dituena. Onena da errespetua dela nagusi hemen. Erlijio eta jatorri anitz daude, baina inork ez dio inori ezer inposatzen eta dena errespetatzen da".

babestutako edukia

0 km

Zaindu gertukoa

erreportajea

Unibertsitatera sartzeko ebaluazioa ezbaian jarri dute ikasleek

Uztaila hasieran egingo dute Unibertsitatean Sartzeko Ebaluazioaren aurtengo bigarren deialdia. Lehenengo deialdian behar besteko kalifikazioa lortu ez zuten ikaslaek edota COVID-19agatik ekainean aurkeztu ezin izan ziren ikasleak aurkeztuko dira, besteak beste. Aiaraldea Komunikabidea azterketa egin duten zenbait ikaslerekin elkartu da, probaren baliagarritasunaz eta ikasketa prozesuaren inguruan hausnartzeko helburuarekin.

“Ezin da urteetan ikasitakoa nota bakar batean laburbildu”

NAGORE SAGARTZAZUk EKAINEKO DEIALDIAN EGIN ZUEN SELEKTIBITATE FROGA. IKASKETA PROZESUAZ ETA EBALUAZIO SISTEMAZ MINTZATU DA

Selektibitate froga egin zenuen hilabete hasieran, zelan joan da?

Ondo atera zait, matematika zen nire bigarren aukera eta nota altua eskatzen zuten, 12,5. Azkenean 12,63 atera dut, ez nuen espero egia esan. Datorren urtean, hala ere, Mondragon Unibertsitatean diseinu industrialeko gradua ikasiko dut.

Presioa handia da?

Nik uste ikasleok DBHko 4. mailatik jasotzen dugula selektibitatearekiko presioa. Batxilergoko ikasketa guzti guztiak azterketa bakar bat prestatzera bideratzen dira, hori da helburu bakarra. Presioa hain da handia, oso gogorra da! Selektibitateko azterketa da bi urteetako ikasketa prozesuaren helburu bakarra; azterketa on bat egiten baduzu ondo, baina azken frogan huts egiten baduzu izugarria da frustrazio sentsazioa. Batxilergoko bide horretan ezer gutxi ikasten ari nintzela sentitu izan dut: azterketa bateko ariketak nola egiten diren ulertzea ez da ikastea.

Ebaluazio sistema hori egokia dela uste duzu?

Ez, inondik inora. Kalifikazio baten arabera ebaluatzen gaituzte, zenbaki bat. Nola laburbildu daiteke urteetako ikasketa prozesua eta bertan garatutakoa zenbaki bakar batean? Gutxieneko nota horrek, gainera, zure etorkizuneko ikasketak baldintzatuko dituerabat, ez bazara kalifikazio batera iristen ezin duzu nahi duzun hori ikasi, hori bidezkoa da? Nik uste ezetz. Jendeak aukera izan beharko luke nahi duena ikasteko.

Nola egiten zaio aurre horri?

Lehendabizi kontzientzia hartzea, eta bigarrenik zure burua ondo antolatzea. Gaitegi oso zabala hartzen du unibertsitatean sartzeko frogak, ariketak nola egiten diren irakasten digute, ez ordea nola ikasi behar den. Eta hori ez da ikastea.

Nola bizi izan dituzu azken hilabete hauek?

Oso luzeak egin zaizkit azken hilabeteak. Gainera ikasketa prozesu zail hau koronabirusaren pandemiarekin nahastu zaigu, eta are gehiago korapilatu du guztia. Disfrutatzeko sasoian gaude batxilergoa amaitu dugulako, baina ezinezkoa zaigu. Hamaika egutegi egin ditut nire burua ordenatu eta egunez egun zer egin behar nuen argi izateko. Egunero 4 ordu ematen nituen ikasten, goiz eta arratsaldez.

Pandemiak ikasketa prozesuan eragin zuzena izango zuen ere.

Bai, erabat. Liburutegian ia ez dago ikasteko tokirik, eta gainera bakarrik egin beharra dago. Amurrioko Gaztetxean badago ikasteko espazioa, baina baliabide gehiago behar ditugu herrian.

Lagunen artean elkar lagundu duzue?

Modu erabat indibidualean ikastera behartzen gaituzte, baina argi daukat askoz aberasgarriagoa dela lagunekin eta klasekideekin ikastea. Zalantzak konpartitu eta guztion artean arazoei aurre egiteko gaitasuna biderkatu egiten da. Ez gaituzte taldean lan egin eta ikasteko prestatzen, eta hori funtsezkoa dela deritzot. Ikasteko bakarrik ez, elkar babesteko eta zaintzeko ere oso batuta egon gara. Egunero, ikasten bukatutakoan, ordu batzuk ematen genituen elkarrekin, ikasketez ahaztu eta gure buruei tarte bat eskaintzeko.

Hezkuntza sistemak, COVID-19ak... indibidualismora garamatzate, baina kolektiboki bakarrik egin dezakegu aurrera.

IZARO CUADRA
IKASLEA

“Fck Sele”



Uztaileko selektibitateko bigarren deialdia gainean dugun honetan, beste behin ere, ekainean bezala, milaka ikasle ikasmahaietan ileetatik tiraka, itota.

Selektibitatearen aurreko egun hauetan ikasteko -edo eduki guztia ezer ulertu gabe irensteko- geratzen zaigun denbora kalkulatzen dugu agobiatuta, badakigulako egun gutxi barru ditugun azterketetan gure etorkizuna jokoan dagoela eta nota batean neurtuak izango garela, beste ezerk axola gabe.

Pandemiak aurtengo ikasturtea bereziki zaila izatea ekarri du, aurreko urteko konfinamendua eta ikasturte honetan zehar bizi behar izandako beste batzuk, baliabide falta ikastetxeetan, ratioak jaitsi ez izana, kontrol soziala areagotzea... Eta honen aurrean azterketetan bi ereduren arteko ariketak hautatzeko aukera ematen zaigu, honekin arazoa konponduko balitz bezala eta gainera fabore bat egiten digutela eta eskertuta egon behar garela ematen du.

Baina ez, ez dugu ezer eskertzeko. Selektibitate madarikatua egungo hezkuntza sistema agortuta dagoelako beste adibide bat, eta beste behin ere agerian geratzen da ikasleon bizitzak ez direla erdigunean jartzen.

Eta selektibitatea bezala, alderdi pedagogikotik guztiz zentzugabea da Ipar Euskal Herriko ikasleek duela egun gutxi batzuk egin behar izan duten Baxoa azterketa. Azterketa frantsesez egitera behartuak daude, haien euskaraz ikasi nahi izatearen eskupidea ukatuz, eta gainera ikasketak euskaraz jarraitzeko erreztasunik ez zaie jartzen. Hezkuntza sistemak Frantziako eta Espainiako estatuen mesedera daudelako adibidea.

Aurtengoan, zenbait ikaslek Baxoa euskaraz aldarrikatu eta filosofiako azterketa euskaraz idatzi dute. Eta bestelako hezkuntza eredu bat posible dela badakigulako, guk ere ozen diogu: FCK SELE eta gora ikasleon borroka!

“Azterketak egin baino 10 egun lehenago itxi nintzen etxean”

UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTA PROBA EKAINEKO LEHENENGO DEIALDIAN EGIN ZUEN **UXUE ZABALA** LAUDIOARRAK. COVID-19ak BALDINTZATUTAKO DEIALDIA IZAN ZEN, ETA EZARRITAKO NEURRIEN INGURUAN MINTZATU DA AIARALDEA KOMUNIKABIDEAREKIN

Nolakoak izan dira pandemiak baldintzatutako azken bi ikasturteak?

Laudio Institutuan ikasi dut. Iazko ikasturtea ohiko moduan hasi zen, baina martxoan etxera joan behar izan ginen, itxialdian, COVID-19a dela medio. Orduan hasi ginen bideodeiekin klaseak ematen. Hezkuntza eredu berria izan zen ikasle zein irakasleentzat, eta ez genuen asko ikasi. Ez zen kalitate onekoa izan. Etxean geunden egun guztian lau hormen artean, eta leku berean ikastea, atseden hartzea eta aisialdirako erabiltzea ez da onena arreta mantentzeko. Batxilergoko bigarren urtean neurri berrietara moldatu behar izan ginen, eta gauza batzuk ezin izan ditugu egin. Esaterako, nik kimika ikasi dut eta ez ditugu esperimentuak egin laborategian. Nire kasuan etxean itxialdian egon nintzen COVID-19 adela eta. Bi astez jarraitu nituen klaseak etxetik. Ordenagailua zegoen gelan eta ni konektatzen nintzen, baina ez zen gauza bera.

Hauta probak izugarri baldintzatu du zuen bizitza, ezta?

COVIDa izanez gero, edo harremana izanez gero norbaitekin gaixo egon dena, ezin zenuen hautaproba egin. Egia da aukera zegoela uztailean egiteko lehen deialdia izango balitz bezala, baina nik ikasi dut azken hilabetean eta klasera joan naiz birpasatzeko. Ezin nintzen beste hilabete bat etxean egon ikasten. Hortaz, azterketak baino 10 egun lehenago etxean itxi nintzen. Ez nintzen joan ez eskubaloira, ez ingelesera. Bakarrik joan nintzen klasera birpasatzeko.

Ez nintzen lagunekin ez familiarekin atera kalera. Gehienez paseo bat. Nire eskubaloi taldean guztiok egin dugu. Taldeko batek COVIDa hartu zuen eta ez zuen beldurrik, baina denbora behar zuen ikasteko.

Zer egin duzu orduan?

Kirola praktikatzeari utzi nionez, etxean egin dut deskonektatzeko. Youtube erabili dut horretarako. Tarteka atsedenaldiak hartzen nituen; musika, sakelakoa, filmeren bat...

Nota ona behar duzu?

Medikuntza ikasi nahi dut, hortaz, bai. Nota altua behar dut. Iaz 12,8 izan zen gazteleraz eta 12,6 euskaraz.

Presioa barruan nuen. **Aztertzaileek aintzat hartu dute egoera berezian ikasi duzuela?**

Ez da urte arrunta izan. Hautaproba egiteko eredua iazkoa izan da. Errazagoa izan da. Bi azterketa ereduren artean hautatu ordez, hobeto zetorkigun galderekin bakarra osatu genuen, biak nahastuta. Hala ere, aintzat hartu beharra dago denbora luzez itxialdian egon ostean, ikasgai batzuk ez dituzula ondo landu, eta horiek hautaproban sartzen badira, arazoa da.

Segurtasun neurriak egokiak ziren?

Guk Gasteizko Koldo Mitxelena liburutegian egin genituen. Eskualdekook hor batu ginen: Lanbide Heziketa, Ikastolak, Institutua... Neurriak onak ziren, baina sarreran guztiok pilatu ginen. Gero abizenen orden alfabetikoan deitu gintuzten eta neurriak mantendu ziren. Adibidez, azterketa amaitzean bazegoen jendea esateko ezin ginela han geratu. Musukoa, gelak, segurtasun distantziak zeuden, edukiera ere murriztua...

Nire gelan 20 ikasle inguru geunden.

analisia

Tubacexeko greba mugagabea, fase berri baten atarian

Elkarretaratzeak egin zituzten Tubacexeko langileek Bilboko epaitegien aurrean, epaiketak iraun zuen bi egunetan. **Aiaraldea.eus**

Kaleratzeen aurkako epaiketak, Legebiltzarreko adierazpena, akziodunen batzarra... gauza ugari geratu ziren iragan astean Tubacexeko greba mugagabearen testuinguruan.

Testua **Aimar Gutierrez eta Txabi Alvarado Bañares**

Egun biziak izaten ari dira hauek Tubacexeko grebalarientzat. Gaur -ekainak 30- 140 egun beteko dituzte greba mugagabea hasi zutenetik.

Iragan astean izan zuten kaleratzeen aurkako epaiketa. Astelehenean TTI lantegietako kaleratzeak aztertu zituzten Garbiñe Biurrin presidente duen aretoan. Epaiketa hasi aurretik epaileek proposamena plazaratu zieten bi aldeei: Enplegua Erregulatzeko Espedientea mahaiaren gainetik kentzea, eta Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedientea ezartzea, kaleratutako langileak berronartuz. Enpresa Batzordeak proposamena onartu zuen, baina zuzendaritza horren aurka agertu zen.

Asteartean, berriz, Aceralava altzairutegiko kaleratzeen txanda izan da. Juan Carlos Iturri epailearen aretoan gauzatu da bigarren saio hau.

Sententzia, iristear

Sententzia datozen egunetan aterako dela aurreikusten dute. Artikulu hau, beraz, oso azkar geratu daiteke zaharkituta. Hala ere, gatazka ez da epaileen ebazpenarekin amaituko, helegiteen txanda iritsiko delako jarraian. Gatazkak, beraz, bide luzea du oraindik aurretik. Bien bitartean, borrokan jarraitzeko deia luzatu dute grebalariek.

Adostasuna Legebiltzarrean

Horrez gain, Eusko Legebiltzarrean ere egon ziren Tubacexeko Enpresa Batzordeko ordezkariak iragan ostegunean. Izan ere, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos talde parlamentarioek legez besteko proposamena aurkeztu zuten Aiaraldeko lan gatazkari "amaiera justua ematen laguntzeko" helburuarekin. Gainerako talde parlamentarioen babesarekin onartu zuten proposamena.

Honakoa eskatzen die testu horrek Tubacexeko zuzendaritzari eta sindikatuei: kaleratzeei irtenbide alternatiboak bilatzeko akordioak lortzea, kaleratutako pertsonak berriro hartzea ahalbidetuko duten koiunturazko neurriak aplikatuz.

Enpresa Batzordetik positiboki baloratu dute erdietsitako akordioa, baina testu esplizitu eta zehatzago bat adostea espero zuten, Enplegua Erregulatzeko Espedientea erretiratzea eskatuko zuena.

Hala adierazi zuten batzordeko kideek Legebiltzarretik ateratzean: "Badirudi klase politikoak bere osotasunean ulertzen duela Enpresa Batzordearen ikuspegia zuzena dela: bizi dugun krisia pandemiaren ondorioa dela. Epaiketetan azaldu dugun planteamendu berdina da hori, eta espero dugu epaileek ere gure arrazoiei erreparatzea eta guztion artean egoera iraultzeko gai izatea".

Akziodunen batzarra

Legebiltzarreko adierazpenak bat egin zuen denboran Tubacexeko Akziodunen batzarrekin, egun berean egin baitzen. Bertan, Jesus Esmoris kontseilari delegatuak argitu zuen hedabideetan egun batzuk lehenago argitaratutako informazioa ez zela zuzena.

"Tubacexek dio kaleratzerik gabe porrot egin ahalko lukeela 2022an". Titular hori plazaratu zuen *El Correo* egunkariak bi egun lehenago. Baina hori gezurra da, Esmorisek akziodunen batzarrean azaldu zuenez.

Tubacexeko kontseilari delegatuaren hitzetan, kazetariaren "akats" bat izan zen titularra. "Argi dago ez dela Tubacex taldea kiebra arriskuan dagoena. TTI enpresaz hitz egiten ari gara soilik", azaldu zuen zuzendaritzako kideak, "konpainia hori bai sartu daitekeela porrot arriskuan grebak aurrera jarraitzen badu".

El Correo-ren titularra gaizki dagoen arren, albistearen gorputzak bat egiten du Esmorisek esandakoarekin. Hala ere, kontuan hartu behar da Tubacex taldea 14 enpresaz osatutako holdinga dela gaur egun. TTI horietako bat baino ez da, eta Aceralava ere dago Aiaraldean.

Gainera, sindikatuek behin baino gehiagotan salatu dute zuzendaritzak "kontabilitate ingeniaritza" egiten duela, Aiaraldeko fabrikak errentagarriak ez direla irudikatzeko (irabaziak taldeko beste enpresa batzuei egotziz, adibidez).

Kaleratzeak, "beharrezkoak"

Multinazionalak 2020. urtean izandako gorabeherak azaldu zituen Esmorisek akziodunen

batzarrean. Nabarmendu zuenez, taldeko fabrika guztietan (20 guztira mundu osoan) ezarri dituzte Enplegua Erregulatzeko Aldi Baterako Espedienteak, gastuak murrizteko. "Zoritxarrez, eta ikusita krisi hau geratzeko etorri dela, taldeko 600 pertsona alboratu behar izan ditugu. Urte luzez gurekin lanean egondako pertsonak ziren, eta gure munduko lantegi ezberdinetan kokatuta zeuden". Erabaki horiek "garratzak" baina "erabat beharrezkoak" direla nabarmendu zuen kontseilariak, "taldea erantzukizunez mantendu ahal izateko".

Neurri horiek guztiak aplikatuta, 30 milioi euro inguru aurreztea lortu dute, Esmorisen esanetan.

Etorkizun baikorra

Hala ere, baikor azaldu zen kontseilari delegatua batzarrean. "Gai izan gara lerro guztiak mantendu eta zabaltzeko, eta 185 milioi euroko kutxa lortu dugu urte amaieran, datozen lau urteetako amortizazioak ordaintzeko haina".

Gauzak hala, Esmorisek "aurreikuspen onak" ditu urtearen bigarren zatirako, "eta baita hurrengo urteetarako ere". Kontratu garrantzitsuak sinatu dituztela nabarmendu zuen arduradunak, eta multinazionalak ez diola hazteari utzi, ezta pandemia egoeran ere. "Oso ondo posizionatuta gaude COVID-19aren aurreko garaietara

Iragan astean egin ziren kaleratzeen aurkako epaiketak, eta sententziak iristear daude. Hala ere, bide judiziala gehiago luzatuko da, helegiteen txanda iritsiko delako gero

itzultzeko. Hori bai, askoz produktu tona gutxiago egingo ditugu, asko balio erantsi gehiagorekin, eta horretarako pertsona gutxiago behar izango ditugu, noski".

Plan estrategiko berri batean murgilduta daudela ere aipatu zuen batzarrean, eta nabarmendu zuen plan "erabat apurtzailea" izango dela, deskarbonizazio prozesuari eta energia berriztagarrien aldeko apustuari erantzuteko. "Guk eboluzio horren parte izan behar dugu, eta horretarako birposizionatu behar gara, gasaren sektorean". Ildo horretan, Brasil eta Ekialde Hurbileko bezeroetan zentratu behar direla gehitu zuen.

Mezua sindikatuei

Tubacexeko presidenteak -Alvaro Videgain- ere hartu zuen hitza batzarrean. Izan ere, bere azken bilera izan zen multinazionalaren presidente moduan. Aurrerantzean Francisco Garcia Sanzek hartuko du bere lekua (Volkswagen taldeko presidenteordea izandakoak). "40 urte igaro dira Tubacexen sartu nintzenetik, eta azken 29 urteak eman ditut zuzendari lanetan", azaldu zuen Videgainek akziodunen aurrean, eta aipatu zuen ez dela ibilbide erraza izan. "Une zailak bizi izan ditugu", nabarmendu zuen, eta 1992. urtean bizitako ordainketen etetea jarri zuen horren adibidetzat. Bere ustez, krisi hori hainbat faktoreren

Langileek gehiegi kobratzen dutela nabarmendu zuen Alvaro Videgainek Tubacexeko akziodunen batzarrean eta Vocento taldearentzat eginiko elkarrizketan

ondorioz eman zen, baina bat nabarmendu zuen besteen gainetik: langileen kostuak. "Genituen lan-kostuek ez ziguten gure lehiakide europarrekin lehiatzen uzten".

Horri lotuta, "hausnarketa bat" helarazi nahi izan zien Euskal Herriko sindikatuei: "Egoerak, askotan, errepikatu egiten dira, eta ez ditugu ikusi nahi. Hemengo lan kostuak ezin daitezke Austria, Italia edota Estatu Batuetan ditugun lantegietakoak baino altuagoak izan. Ezin dugu pentsatu hemen ez dela ezer gertatzen. Duela 30 urte ere berregituratu behar izan genuen enpresako plantilla aurrera jarraitu ahal izateko, horregatik gaude gaur hemen".

Elkarrizketa Vocenton

Ildo horretan sakondu zuen Videgainek igandean *El Correo* egunkarian plazaratutako elkarrizketan. Bertan, zuzenean aipatu zuen, bere ustez, arazoaren muina zein den: langileek gehiegi kobratzen dutela. Sindikatuen aurka ere gogor jo zuen, egoeraren errudunak zirela argudiatuta.

Kazetariak ez zion epaiketari buruzko ezer galdetu, baina ez da harritzekoa. Izan ere, harreman estua dago Vocento taldearen eta Tubacexen artean. Alejandro Echevarria Busqueten kasua da horren adibide: *El Correo* egunkariko zuzendari exekutiboa izan zen, Tubacexeko Administrazio Kontseilura igaro zen gero. Mediaset taldeko zuzendari exekutiboa da agur egun.

Eusko Jaurlaritza, isilik

Guztira, 219 akziodunek parte hartu zuten osteguneko akziodunen batzarrean, telematikoki, multinazionalaren kapitalaren %54,37 ordezkatuta. Adostasuna ia erabatekoa izan zen bozkatutako puntu guztietan. %99,8k baino gehiagok bozkatu zuen alde puntu guztietan, batean salbu: administrazio kontseiluko kideen soldaten puntuan (%93,47ra jaitsi da adostasuna gai hori bozkatzean). Puntu hori onartuta, kontseilari bakoitzak 40.000 euro jasoko ditu urtero, eta 2.700 euro emango dizkiete bilera bakoitzeko.

Eusko Jaurlaritzak Tubacexen akzioen %3,21 kontrolatzen du, Itzarriren bidez. Multinazionaleko 4. akziodun nagusia da. Hala ere, erakunde publikoak ez zuen aukera baliatu batzarrean hitza hartu eta Aiaraldeko lantegietan otsailetik hona luzatu den gatazkan lerrokatzeko.

Telematikoki egin zuten Tubacexeko akziodunen batzarra, iragan ostegunean. **Aiaraldea.eus**

kultura

“Euskal Herriko periferiako herriekiko dauden aurreiritzi asko apurtzeko baliatu nahi dut nire ipuina”

UGAITZ AGIRRE (Usurbil, 1992) ARTZINIEGAN EGONALDIA EGITEN DABIL UDALBILTZAK SUSTATUTAKO ‘GEURETIK SORTUAK’ EGITASMOAREN BARRUAN. HERRIAN OINARRITUTAKO IPUIN BAT IDAZTEA DU HELBURU, ETA EGUNEROKO BIZITZAREN NONDIK NORAKOAK EZAGUTZEN ARI DA.

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Zertan datza Udalbiltzaren “Geuretik sortuak” dinamika?

Udalbiltzak sustatutako egitasmoa da, sortzaileak eta Euskal Herriko herri desberdinak arte diziplina desberdinen bidez lotzea helburu duena. Euskara hutsezko kultur sormena, ekoizpena eta hedapena sustatu nahi dituen zirkuitu nazionala da ‘Geuretik sortuak’.

Guztira 28 sortzaile gara hautaketa fasea igaro eta erronkan murgildu garenak. Hiru diziplina desberdinetan gauzatuko da egitasmoa: literatura, zinemagintza, eta antzerkigintza.

Zertan datza zure sorkuntza prozesua?

Nik ipuin bat idatziko dut, beste 17 idazlek bezala. Hautaketa fasera aurkeztu nuen proiektuan lapurreta baten inguruko istorioa aurkeztu nuen, non bisitari bat herri batera iritsi eta bertako ikur esanguratsu bat lapurtuko duen. Istorioa Artziniegara moldatuko dut orain, Artziniega baita nire sorkuntza egonaldirako egokitu zaidan herria.

Ezagutzen zenuen Artziniega aurretik?

Ez, ez nuen ezagutzen. Ezaguna zitzaidan nire unibertsitateko bi klasekide hemengoak baitziren baina ez nekien ezer herriaren inguruan ezta zehazki mapan non kokatzen zen ere.

Nolakoa ari da izaten zure egonaldia?

Dagoeneko bi aldiz egon naiz herrian, bertako txokoak ezagutu eta eguneroko bizimodua nolakoa den jakiteko. Maiatzean egon nintzen aurrena eta orain ekainean beste egun batzuk igaro ditut.

Komentuan eman didate ostatua eta lo egiteko tokia. Udalak eta herritarrek baliabide ugari eskaini dizkidate nire egonaldia ahalik eta atseginena eta emankorrena izan dadin. Unai Gotxi alkateordea ari da gidari lanak egiten. Ni herriko egunerokoaz bustitzen ahalegintzen ari naiz, guzti horrek isla izan dezan idatzi behar dudan istorioan.

Besteak beste Santxotena museoko eta Artziniegako Museo Etnografikoko ateak parez pare zabaldu dizkidate nire dokumentazio lana ahalik eta gehien aberasteko.

Uztailean beste astebetez hurbilduko naiz herrira. Auzokideekin elkartzea eta herriko anekdota desberdinak jasotzea da nire asmoa. Herriko apaizarekin elkartzeko aukera izango dut, besteak beste; misiolaria izandakoa da eta ziur nago herriko bitxikeria ugari kontatuko dizkidala.

Zein izan zen zure lehenengo inpresioa Artziniegara iristerakoan?

Oso herri polita dela deritzot, asko gustatu zait. Kaleetan, tabernetan... bizitasun handia dagoela nabari da, eta hori asko eskertzen dut, batez ere bizi ditugun garai hauetan. Paseo ugari eman ditut herri ingurutik eta asko disfrutatu dut. Kale eta tabernetan ere ibili naiz herritarrak nola bizi diren ezagutzeko.

Baduzu Artziniegako txoko kuttunik dagoeneko?

Leku asko ditut ezagutzeke oraindik, baina dagoeneko erabaki dut non gertatuko diren ipuineko hainbat pasarte. La Tejako urtegia asko gustatu zait. Bi aldiz izan naiz bertan eta hainbat burutazio etorri zitzaizkidan burura, oso leku atsegina eta interesgarria da.

Errota zaharra ere asko gustatu zitzaidan, ziur nago horrek ere izango duela espazioa nire lanean.

Nola uste duzu islatuko duzula Artziniega zure ipuinean?

Gauza asko zehazteke ditut, baina Euskal Herriko periferiako herriekiko dauden aurreiritzi asko apurtzeko baliatu nahi dut nire lana. Askotan, Gipuzkoatik esaterako, uste dugu Euskal Herriko ertz hauetan, Burgoseko mugan, ez dela euskaraz hitz egiten. Aukera ona dugu esku artean Euskal Herriko txoko desberdinak kulturaren bidez mapan jarri eta hauen errealitatea azalerazteko.

Noiz aurkeztuko duzu ipuina?

Irailean aurkeztu behar ditugu sorkuntza literarioak. Udalbiltzak argitalpen bat egingo du guztiekin.

“Nire bizitzako hainbat etapetako olerkiak bildu ditut liburuan”

ANA BASTERRA MARCUARTUk (Laudio, 1975)
GAZTETATIK IDATZI DU POESIA, ETA *ESENCIAS DE MÍ* LIBURUA ARGITARATU BERRI DU, BERE BIZITZAKO HAINBAT ETAPETAN IDATZITAKO OLERKIEKIN

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

***Esencias de mí* liburua plazaratu berri duzu, baina aspalditik duzu idazteko zaletasuna. Zerk bultzatu zaitu une honetan argitaratzera?**

Urte asko daramatzat idazten, nerabezarotik. Zaletasun bat zen, eta familiako kide batzuek zekiten gustuko nuela, nire senarrak tartean. Betidanik idatzi dut poesia, transmititzeko eta sentitzeko modu bat delako. Badut prosa ere jorratzeko asmoa, baina momentuz ez dakit nola. Horrenbeste urtez idazten igaro eta gero, argitaratzeko ilusioa sortzen da. Badut lagun bat ipuin laburrak idatzi eta argitaratu dituena, eta testu ugari trukatu ditugu. Berak animatu ninduen argitaratzera. Zalantzak nituen, baina saltoa ematea erabaki nuen, eta liburu hau da emaitza.

Nolakoa izan da argitaratze prozesua?

Oso erraza. Nire lagunak bi argitaletxe proposatu zizkidan, eta Círculo Rojo hautatu nuen. Eskuizkribua bidaltzea eskatu zidaten, eta handik hamar egunera esan zidaten argitaratuko zutela.

Pandemiak izan al du eraginik liburuaren idazketan?

Ez. Ni idaztera mugatzen naiz, horretarako gogoa dudan uneetan. Ezagutzen dut pandemia idazteko baliatu eta gero idatzitakoa argitaratzera animatu den jendea, baina nire kasuak ez du zerikusirik.

Liburu laburra da, olerkiz osatutakoa.

Bai, denetarik dauka. Lehen zatiak nire bizitzako lehen urteei egiten die erreferentzia. Badago bigarren zati bat duela ez asko idatzitakoa eta azken zatia duela gutxi idatzi dut. Jende askok esan dit liburu txikia dela, idazten daramatzadan urteak kontuan hartuta. Ikusiko dugu ea etorkizunean beste bat argitaratzen dudan, baina ez nuen liburu mardula plazaratu nahi. Naizenaren isla txikia da liburua.

Zure bizitza duzu hizpide, beraz?

Beno, badaude nire bizitzaren zati batzuk, baina baita fikzioa ere, denetarik. Olerki batzukek unean uneko sentimenduak dituzte hizpide. Beste batzuk, aldiz, bizitako istorioak kontatzen dituzte... edo bizitzeko pentsatutako istorioak (barreak). Nire bizipenak, pentsamenduak, egunerokoa, etapak... bildu ditut liburuan.

Harrera ona izan du, beraz.

Bai. Bitxia da, baina harrera oso ona izaten ari da. Iritzi negatibo gutxi daude. Arraroa iruditzen zait, baina oso pozik nago horrela izateaz.

Baduzu olerki gehiago plazaratzeko asmorik?

Badut bigarren liburu bat idazteko asmoa, baina aurrerago. Denbora eman nahi diot lehen liburu honi, zer nolako bidea egiten duen ikusteko. Aurrerago baloratuko dut zer egin. Baditut olerki gehiago sortuta, eta idazten jarraituko dut.

Erauntsi Dantza Taldeak erritmoa jarri zuen berriro hirian

Erauntsi Dantza Taldeko kideak. **Antonio Muñoz**

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Erauntsi Dantza Taldeak hainbat dantza mota eta dantzari atera zituen ekainaren 27an kalera.

Hasiera batean, Gernika plazan izan behar zen emanaldia, baina eguraldiaren ondorioz, eskolako eremu estalian egin zuten. Adin ugariko dozenaka dantzarik euren trebeziak erakutsi zituzten publiko zabalaren aurrean, eta guztiek elkarrekin amaitu zuten dantzaldi koloretsua.

Lagunartean amaitu du bira Maria Rivero & Tribu Bandak, Faktorian

Maria Rivero & Tribu Banda Faktorian. **Aiaraldea.eus**

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Kontzertua eskaini zuen Maria Rivero & Tribu Bandak ekainaren 26an Faktorian. Taldeak azken hilabeteetan eginiko birako azken emanaldia izan zen, eta musikarien lagun eta ezagun ugari bertaratu ziren saioaz gozatzera.

Bere diskoko kantuak aletu zituen Riverok, Gorka Chamorro, Eriz Perez eta Josean Vallerekin batera.

Larunbatekoa izan zen Faktoriaren irekierarako antolatutako kultur maratoiaren azken saioa. Hala ere, uztailean ere bestelako jarduerez gozatzeko aukera egongo da Faktorian.

kirola

“Uste dut etorkizunean neskek emakumezkoen futbolean izango dituztela erreferenteak”

UXUE MENDIA (Laudio, 1997) IRAGAN EKAINAREN 21EAN OMENDU ZUTEN LAUDIOKO UDALAK ETA ALTZARRATE KIROL ELKARTEAK. IZAN ERE, ALAVES TALDEAREKIN 1. MAILARA IGOTZEA LORTU DU FUTBOLARIAK

Testua
Aitor Aspuru Saez

Omenaldia jaso zenuen Alaves taldearekin 2. mailatik 1. mailara igotzeagatik, nola jaso duzu aitorpena?

Oso berezia izan da. Etxean nengoen eta ez nekien ezer. Aitak esan zidan sorpresa zuela niretzat eta udaletxera eraman ninduen.

Berezia da zure herria zutaz harro egotea. Asko eskertzen dut eta ilusioa egin dit.

Nola laburtuko zenuke bukatu berri den denboraldia?

Arraroa izan da COVIDaren ondorioz, baina denboraldi oso erregularra egin dugu. Partida oso gutxi galdu ditugu eta horrela egin ditugu urrats garrantzitsuak gure helburua lortzeko.

Bide luzea izan da, bagenekien zein zen xedea eta taldea batuta egon da.

Zein izan da zure ibilbidea eliteko futbolera heldu arte?

Txikitan Laudion hasi nintzen, gero Ugaon aritu nintzen 7 urtez, horren ostean Aurrera de Vitorian 2 edo 3 urtez eta azkenik Alavesen 2 denboraldi.

Alavesen esperientzia oso polita izan da, bidaiatzeko aukera izan baitugu. Mallorcan, Madrilen... hainbat tokitan egon gara. Oso ondo dago zure taldekideekin, lagunak direnak, bidaia horiek egitea.

Udalak ez ezik, Altzarrate klubak ere omendu zaitu, nola hartu duzu?

Berezia izan da, ni txikia nintzenean erreferente batzuk nituen eta ikustea herriko norbaitek lortu ahal duela, zu ere motibatzen zaitu bide hori jarraitzen. Azken finean, gaur egun emakumeen futbolari garrantzia ematen ari zaio, nahiz eta oraindik asko dagoen egiteko. Bide horretan norbaitek hartzea ni erreferentetzat ilusio handia egiten dit.

Nolakoa izan da zure esperientzia zentzu horretan, arraroa zen neska batek futbolean jokatzea?

Ez, beti hartu dute ondo familiak zein lagunek. Txikitan mutilen taldeetan jokatzen nuen. Lagunekin ere beti ondo, nahiz eta esaten zidaten eurekin ezin nuela maiz egon. Hala ere, ulertzen zuten nire lana dela. Familiaren eta lagunen bultzada goraipatua izan da ere.

Hurrengo denboraldian zer egingo duzu?

Alavesen amaitu zait kontratua, hortaz, hango etapa bukatutzat ematen dut eta asko eskertzen diet lana. Orain bide berriak zabalduko dira eta ez dakit zehazki nora joango naizen, baina jarraitzeko asmoa daukat.

Zer kendu eta zer eman dizu futbolak?

Familia eta lagunekin momentu asko kendu dizkit, denbora asko exijitzen duelako futbolak. Hala ere, profesionaltasuna, eta nire burua antolatzeko gaitasuna lana eta ikasketak uztartzeko ere eman dizkit. Lagunen eta familiaren bultzada ere sentitu ditut. Askotan ezin izan naiz eurekin nonbaitera joan, baina harro egon dira nik egiten nuenaz. Gainera, lagun pilo egin dut nire taldekideen artean. Esango nuke nire bizimodua dela futbola txikitatik.

Jokalari moduan zeintzuk dira zure ezaugarriak?

Atzelaria naiz, zentrala, eta hegalaria batzutan. Azkarra eta langilea naiz, eta taldekide ona.

Atzelariek ospe txarra duzue...

Bai, esaten dute egurra ematen dugula, eta batzuetan horrela izan behar da. Dena den, Alavesen baloia erabiltzen da gehiago. Jokoa da lehentasuna.

Zer nolako erreferente izan dituzu jokalari moduan?

Txikitatik ezin izan dut emakumezkoen futbolaren erreferentzia izan, baina txikitan asko erreparatzen nion Laporteri, eta orain emakumezkoen futbola ikusteko aukera dudala, Maria Leon Barcelonako zentrala dut gustuko.

Konfiantza daukat etorkizunean neskek erreferentetzat izango dituztela emakumezkoak.

Azkenengo mezua futbol jarraitzaileei?

Lan eta lan egitea, ahalegina egitea. Merezi du eta lanaren bidez helburuak lor daitezke.

TXIRRINDULARITZA

Tamirat Navarro irabazle Colindresen, Jose Pereda Memorialean

Tamirat Navarro garaipenarekin itzuli zen Colindresetik. **Aiala T.E.**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Ekainaren 19an Jose Pereda Memoriala irabazi zuten Colindresen. Banakako kategorian Tamirat Navarrok lortu zuen nagusitzea lasterketan. Ihesaldi saiakera ugari egin ostean, Navarrok, Gorka Torresek eta Iurdan Garciak utzi zuten atzean tropela, baina aiararrarentzat izan zen garaipena sprintean.

Proba hori gogorra dela azaldu du taldeak: "Luzea da eta bi mendikate igaro behar dira, bigarrena helmugatik 15 kilometrora". Gainera, Hego Euskal Herriko zein Kantabria, Madril, Asturias, Gaztela Leon eta Aragoiko txirrindulariek parte hartu zuten. Halaber, taldekako sailkapenean Luyando Opticasekoak izan ziren lehenengoak.

Euskal Selekzioa

Gainera, txirrindulari elkarteko Tamirat Navarro eta Asier Beraza aukeratuak izan dira Espainiako Txapelketan aritzeko, errepideko eta mendi txirrindulako diziplinetan, hurrenez hurren.

ATLETISMOA

Tubacexeko grebalarien erresistentzia kutxaren aldeko erronka prestatu du Oinkariak taldeak

Testua
Aitor Aspuru Saez

Oinkariak atletismo taldeak udako kirol erronka egingo du aurten ere, elkartasuna helburu. Hain zuzen, Tubacexeko grebalarien erresistentzia kutxaren aldeko ekimena izango da. Parte hartzeko internet bidez eman beharko da izena

Zehazki, baldintza gutxi daude erronka egiteko; izena ematea eta 5 euroko gutxieneko inskripzioa ordaintzea -hortik gora nahi beste ordaindu daiteke, elkartasun ekimena baita-, dortsala jasotzea, 5 kilometroko ibilbidea osatzea Reforren eta Strava aplikazioa baliatzea marka jasotzeko. Aplikazio hori baliatuko dute Oinkariak taldekoek sailkapena egiteko. Aplikazioa sakelakoan edo bestelako gailu batean deskarga daiteke.

Ibilbidea egiteko tartea, astebetekoa izango da. Ekainaren 28an hasiko da uztailaren 4an bukatzeko. Lehen hiru sailkatuei saria emango diete.

MENDIZALETASUNA

Musikak, dantzak eta mendizaletasunak bat egingo dute Tologorriko tontorrean

2020ko Urmuga egitasmoaren ikuskizuna Tologorri mendian. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Tologorrin egingo du berriro ere Urmuga ekimenak aurtengo edizioko lehen geldialdia, uztailaren 13an

Uztailean abiatuko du Urmuga ekimenak bere bigarren edizioa. Euskal Herria alderik alde gurutzatzen duen zeharkaldiak mendizaletasuna eta musika uztartzen ditu kantauriar eta mediterranear isurialdeen arteko muga naturala jarraituz. Geldialdi bakoitzean kontzertu bana eskainiko dute. Iaz egin bezala, aurten ere Gorobel mendilerroan emango dituzte lehenengo urratsak zeharkaldian parte hartuko duten mendizaleek, uztailaren 13an. Angulo mendatetik Urduñako mendatera joango dira lehenengo etapa horretan, 22 kilometroko bidea osatuz. Ibilaldiaren lehenengo egunarekin bateginez, Donostiako Orfeoia, Mixel Etxekopar Noemi Viana Dantzaria eta François Rossé arituko dira Tologorri mendiaren inguruan, La Ponatan, hain zuzen.

Dagoeneko internet bidez erosi daitezke sarrerak.

SASKIBALOIA

Saskibaloiaren epizentro bilakatu zen Amurrioko Bañueta kiroldegia

Bañueta kiroldegia. **Txerra Molinuevo**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Zaraobe saskibaloi taldak itxiera eman zion denboraldiari Bañueta kiroldegian jokatu ziren finalekin.

Emakumezkoen senior kategoriako eta kadete mailako finalak jokatu ziren, eta aspaldiko partez, ikusleak eta giroa bueltatu egin ziren armailetara.

Amurrioko kadeteak Baskonia ahaltsuaren aurka neurtu ziren. Partida bizia izan zen azken unera arte, eta 2. luzapenean ebatzi zen emaitza. Azkenean gasteiztarrentzako izan zen garaipena.

Emakumezko senior kategoriako finalak Zaraobeko neskak eta CB Arabakoak jarri zituen aurrez aurre. Amurrioko taldeak, ordea, ezin izan zion Gasteizko klubaren erritmoari eutsi.

Zaraobeko arduradunek oso positiboki baloratu dute bai igandeko jardunaldia baita denboraldia ere: "aurrera begira hazten jarraitzea dagokigu, esakintza erakargarri bat eginez".

kirola

“Oso arraroa da Mendilibar bezalako pertsona bat topatzea, pentsatzen duena esaten baitu”

IÑAKI BEA (Amurrio, 1978) FUTBOL JOKALARI PROFESIONALA IZAN ZEN, BAINA AZKEN URTETAN SD EIBARREKO 2. ENTRENATZAILE IZAN DA JOSE LUIS MENDILIBARREN AGINDUETARA.

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Urte asko eman dituzu Eibarren, nolakoa izan da esperientzia?

Oso ona. Aintzat hartu beharra dago sinatu genuenean Eibar entrenatzeko, ez genekiela lehen edo bigarren mailan arituko ginen. Berez, taldeak kategoria galdu zuen aurreko denboraldian, baina Elchek arazo ekonomikoak zituen. Zalantza ugari genituen eta azkenean lehen mailan jokatu genuen. Taldea oso azkar osatu genuen eta zaila izan zen. Jokalari pilorekin hitz egin genuen eta batzuek esan ziguten nahiago zutela Deportivo de La Coruña edo Rayo Vallecano taldeetara joatea, lehen mailako izaera gehiago ikusten zietelako. Erakargarriagoa zen eurentzat hori, Eibar baino.

Hala ere, azkenean talde polita egin genuen eta giroa bikaina zen aldagelan. Zorte on apur bat ere izan genuen, Escalante etorri zen, edo Keko. Ez ziren ezagunak, baina sekulako emaitzak eman zituzten. Denboraldi polita egin genuen.

Hurrengo bi denboraldiak errazagoak izan ziren. Izena bagenuen lehen mailan eta jokalariek entzuten zuten esan behar geniena gure proiektuari buruz. Azken denboraldia zaila izan da, uste baitut ez genuela asmatu fitxaketa batzuekin. Azkenean Pozo bezalako jokalariak etorri ziren, baina berandu. Pablo de Blasis edo Orellana bezalako jokalariak ordezkatzea errazagoa izango zela pentsatu genuen hasieran, baina etorri zen jendea ez ziren moldatu. Ikusten zen irailean taldea ez zegoela ondo osatuta. Hala ere saiakera egin dugu. Ez da denboraldi ona izan, nahiz eta amaieran makillatu apur bat, oso txarra izan da.

Egoera hori, nolabait, kontraesanean dago futbol profesionalaren inguruan dagoen irudiarekin, ezta?

Bai, lehenengo denboraldia horrelakoa izan zen. Jende gaztea etorri zen, Eibar izateko euren taldea salto egiteko beste talde handiago batera. Borja Bastón, Dani García, Keko, Capa... Gero Newcastle edo Athleticen jokatu dute. Diruari dagokionez, La Ligak jartzen du muga Fair Play finantzarioaren bitartez. Berez, Eibar klubak badauka dirua, baina ezin du gastatu ez duelako ondarerik. Ezin ditu jokalariak fitxatu, Ligak jartzen duelako muga.

Ondareak ematen du aukera jokalariak ekartzeko. Nik hori txarto ikusten dut, talde pilo baitaude diru barik jabetzak dituztenez, sinatu ditzakete jokalariak. Atletico de Madrid, Real Madrid, Barcelona... Talde horiek egoera horretan daude, baita historiko batzuk ere, Deportivo de La Coruña, esaterako. Ez dute dirurik baina bai Riazor edo entrenatzeko kirol azpiegiturak.

Hori Eibarrentzat oso kaltegarria izan da eta horregatik inbertitu dirua kirol hiria egiten. Duela 6 urte zegoenarekin alderatuta, izugarri aldatu da. Ipurua hobetu dute, eta orain talde profesionala da. Hasieran aldagelak ez zeuden ondo, eta aurreko denboraldian, Garitanorekin, Iurretan edota Ondarrun entrenatu behar zuten. Orain aurrera pausua eman dute.

Nola bukatu zenuen Jose Luis Mendilibarren bigarren entrenatzaile lanak egiten?

Nik bukatu nuen nire ibilbidea jokalari gisa Alemanian eta nire asmoa zen futbol profesionalaren barruan jarraitzea. Kasualitatez egin nuen fitxajea han nengoelarik. Valladoliden jokatu nuenez, bere kirol zuzendaria Marcosek deitu zidan, eskuin hegaleko jokalaria behar baitzuten. Iradoki nien Patrick Ebert fitxatzea, libre zegoelako. Kriston jokalaria iruditu zitzaien. Harreman hori nuenez, Alemaniako jokalari ordezkari batek deitu ninduen eta berarekin hasi nintzen lanean. Orduan amaitu nuen jokalari moduan eta gero Promosportekin ere aritu nintzen.

Mendilibar hasi zen orduan Levante entrenatzen eta bere jokalaria izan nintzenez hiru urtez Valladoliden, proposatu zidan bigarren entrenatzailea izatea. Levanten lau hilabete baino ez ginen egon, baina Eibarrera berarekin joan nintzen.

Zuek jarraitu nahi zenuten Eibarren nahiz eta bigarren mailara jaitsi?

Bai, Mendilibar zonaldekoa da, Zaldibarrekoa, eta gustura dago. Hiria ez da polita, baina bizitza handia dauka. Jokalariek ere Mendilibar zuten aita moduan, pisu handia zuen. Hori oso zaila da, leku gehienetan jokalariek agintzen dute. Nik ulertzen dut, dena den, jaitsi ostean, beste proiektua behar duela taldeak.

Zein izan da unerik goxoena zuretzat?

Une puntual bat hautatu behar izanez gero, gure lehenengo partida Los Carmenes Granadaren aurka. 1-3 irabazi genuen eta taldea abiadura bizian osatu eta gero, bigarren mailako hainbat jokalarirekin, lasaitasuna heldu zen, ondorioztatu baikenuen ondo jokatuko genuela.

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Irailaren 8an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Eddie Vedder

Zorionak Patrizio! Bakigu horren gazte mantentzeko sekretua zein den: garagardoa... 11 musu eta onlilata

Pili-Mili

Miren/Ixone

Bakarrik ezin da, lagunekin bai! Zailtasunak zailtasun, batera egingo diegu aurre! GORA ZUEK!

Pikete Style

Arhane

Zorionak Arhane!!! Maite zaitugu!!! 5 urte!!!

Ekaitz, aita eta ama

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Denborapasak

ERRAZA

	6		5	7	3			
9				2	4	7		3
7				8				
				4		5		
3	4	2		5	8		7	
8	5				7	6	3	
2					5			
6							4	5
5			8			3	2	

ZAILA

				2	3			
	6	2	5	7			8	
	3	8						
			1			9		
	2	6	9		5			
8		7			2	3		
			7	4	9			
	7		2	5	6	8	4	
	5					6		

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Zozketa

Sharon Stoner rock talde oñatiarraren *Erraietatik* diska zozketatuko du Aiaraldea komunikabideak

Sharon Stoner taldearen *Erraietatik* diskaren zozketa.
Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** uztailaren 9an, 12:00etan.

KOKO RIKO

IRAKURKETA GUNEA

AMA

Idazleak: Maria Ruiz Johnson
Argitaletxea: Kalandraka

Ama, amatasuna, Amalurra... Zenbat gauza den ama. Amatasunari erreferentzia egiten dion ipuina da, poema estiloan idatzirik eta haurraren lehen pertsonan idatzirik, ama zer den esaten digu, irudi zoragarriz lagunduta.



ISTORIO AMAIGABEA

Idazlea: Michael Ende
Adina: 14 urtetik gora

Klasiko bat da Atreiu, Bastian eta haurren enperatrizaren istorioa. Enperatriza hiltzear dago eta soilik salba dezakete, ipuinak irakurtzea ikaragarri gustuko duen Bastianek eta azal berdeen tribukoa den Atreiu. Abenturaz beteriko lana da, eta orri asko dituen arren segituan irakurtzen dena.

JOLAS GUNEA

Uda da, udaberri koloreak ernaldu egin dira eta fruituak ateratzen hasi dira. Gutxinaka gauak, egunari lekua kentzen hasiko da. Baina oraindik ere eguzkiak argitasuna emango digu egunaren parterik handienean.

Euskal Herrian ere, batzuetan ikustea zaila den arren, bero urtaroa da. Arropa gutxirekin jolasteko aukera ematen digun aroa.

Hamaika gauza egin ditzakegu, sortu ditzakegu. Udak kaleak hartzeko eta jolaserako hamaika aukera ematen dizkigu.

- Txiribitekin lepokoak egin.

- Hondartzako harearekin gazteluak egin.

- Hondartzan hare barruan gure gorputzak estali.

- Euria egiten duenean putzuetan oinutsik salto egin.



- Belarretan etzan eta belarreraren kilimak gorputzean nabaritu. Oinutsik belarraren gainean ibili.

- Igerilekuetan uretara, hamaika modu ezberdinez bota. Bakarrik , bikoteka, taldeka, buruz, bonba, karate...

- Zuhaitz, adar eta hostoekin etxolak egin.

- Belardi batean akanpatu eta gaua pasatu.

- Frutekin izozki goxoak prestatu.

- Animali ezberdinen zaratak entzun eta imitatzen saiatu.

Udaz gozatu, jolastu, lagunekin ondo pasatu...

Kalea hartu eta kalean disfrutatu!

Eta planak egiteko, bisitatu
www.jolasparkeak.eus webgunea

KOKO RIKO

KOKORIKO

HEZKUNTZA FAKTORIA

Zaintza

Beste ikasturte bat egin dute haurrek, irakasleak azken lanak egiten daude eta iraila arte eskolek sarraila itxiko dute. Aurten gainera oso urte ezberdina pairatu dute haurrek. Protokoloak, bideak, burbuilak... Egoera oso gogorrak bizi behar izan dituzte haurrek, geletan itxiago, jolastokietan espazio mugatuagoa, musukoak sortzen dituen mugak... Asko entzun da, haurrak superheroiak direla, eta oso egoera gogorretara ere moldatu egiten direla. Hala ere, nire buruari galdetzen diot, hauek al dira baldintzak haurrek heziketa osasungarri bat izateko? Eskolek, eta oro har haurrek dituzten espazio egituratuek, haurra behatu eta bere beharrak asetu beharko lituzke. Haurra ez da ohitu behar egoera gogor batera, baizik eta eskola haurraren beharretara. Hurrengo ikasturteari dagokionez, ez dakigu zelan hasiko den, baina ez du ematen askorik aldatuko denik. Leku askotatik frogatua dago COVID-19a ez dela gaixotasun pediatriko bat, eta haurrak ez direla, hasieran esaten zen moduan, transmisore gorenak. Orduan zergatik antzeko jarraitu? Horregatik, beste behin ikas komunitatea hausnartzera gonbidatzen dugu, eskolak haurren beharretara moldatzeko, haurtzaroaren kultura errespetatzeko. Eta hezkuntza sailak markatzen dituen dekretuen arrakalak bilatzeko gonbita luzatzen dizuegu. Egoera honetan bizi gaitezen uzten digutenaren arrakala horietan dantzan.

Uda dator, gozatu eta bai udan zein irailetik aurrera ere zaindu gaitezen, zaindu ditzagun gure haurren hazkuntza prozesuak!

Ai ene! Tranpolinera igo eta irrist egin du gizajoak! Zein da bere itzal zuzena?

Itzala



Hamaikakoa



Aurki itzazu bi irudion artean dauden 11 aldeak.

Ordena itzazu arrain harrigarri hauek handitik txikira, handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 6.

Handitik txikira

Mezua

Eman marrazki bakoitzari dagokion hizkia eta esaera polit bat agertuko zaizu.



ALFABETOA

SOLUZIOAK



Kontra

Mundutik Aiaraldera

Kallerna

Inma Mendaza

JAIOTERRIA
JAEN (1995)

BIZILEKUA
AMURRIO

BIDAIAREN ZERGATIA
ERIZAIN BEZALA LAN EGITERA ETORRI ZEN

“Alferrik da euskara jakitea maitatzen ez baduzu”

Noiz etorri zinen Amurriora bizitzera?

Nire ama Jaengoa da, Aita Amurriokoa. Askotan etorri joan izan naiz bertara oporretan. Duela bi urte, ordea, Osakidetzan erizain lanpostua lortu nuen eta bizitzera etortzea erabaki nuen.

Aurretik, unibertsitate garaian, ikasturte bat eman nuen Euskal Herrian ikasten ere, lanean hasi nintzenean dagoeneko ezagutzen nuen hemengo osasun sistemaren funtzionamendua.

Euskara ikastea erabaki zenuen lanera etorri zinenean, zerk bultzatuta?

Asko erakartzen nau euskarak, oso atsegina zait hizkuntza. Gainera ez zait gustatzen jendeak euskaraz egin nahi izatea eta nik ezin ulertzea, frustrantea zait.

Horretaz gain lanerako ere baliagarria zitzaidan. Osakidetzan lan egiteko nahitaezkoa ez den arren, baloratu egiten da euskararen ezagutza, eta pazienteekin nahi duten hizkuntzan egin dezaket.

Euskal Telebistan Sevillako aurkezle bat azaltzen zen euskaraz hitz egiten, eta oso ondo moldatzen zen. Horrek asko motibatu ninduen euskara ikasteko.

Amurrioko euskaltegira jo zenuen horretarako.

Bai. Mundu guztiak esaten zidan oso zaila zela, ez nuela ikasiko, baina gezurra dela demostratu dut. Iniziatibarekin erraz ikas daiteke. Asko dut hobetzeko oraindik, baina ia gehiena ondo ulertzeko gai naiz.

Asko disfrutatu dut ikasten, hori euskaltegiko irakasleei zor diet nagusiki: euskara irakasteaz gain euskararekiko eta euskal kulturarekiko maitasuna ere transmititu digutelako. Alferrikakoa da hizkuntza bat jakitea hau maitatzen ez baduzu. Aurreiritzi asko daude Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo euskararekiko eta euskal kulturarekiko. Etengabe nabil aurreiritzi horiek gezurtatzen, andaluziar kulturarekiko dauden aurreiritziekin bezala.

Zertan dira antzekoak andaluziar eta euskal kulturak?

Oro har jendea oso atsegina dela uste dut, bai Euskal Herrian bai ta Andaluzian ere, eta lurrarekiko maitasuna oso handia da bi kulturetan. Besoak zabalik dituzten bi herri dira.

Osakidetzan lanean zinela, asko erabili duzu euskara?

Bai! Paziente askorekin egiten nuen euskaraz, eta eurek asko eskertzen zuten nire ahalegina. Hasierako esaldiak euskaraz egiten nituen beti. Asko ikasi dut horri esker. Lekeitioko paziente bat izan nuen behin, ez zekien gaztelaniaz hitz egiten, eta bere alabaren laguntzarekin batera joan nintzen berarekin euskara hutsezko harremana egiten. Berarekin ikasi nuen adibidez odola nola esaten den.

Euskara ikasten jarraituko duzu?

Ekainean Jaenera bueltatu egin nintzen Osakidetzako kontratua amaitu zitzaidalako. Hilabete barru Malagan hasiko naiz lanean baina euskara ikasten jarraitzeko asmoa daukat, argi eta garbi. Aitziberrek, euskaltegiko irakasleak, ikasten jarraitzeko materiala oparitu zidan, eta euskaltegiko lagunak prest daude nirekin batera mintzamena lantzeko.

JAEN



DESKRIBAPENA
Andaluzia iparraldeko probintzia bat da Jaen. Mundu mailako oliba olio ekoizlerik handiena da, eta lurraldeko ekonomia olibondoen monolaborantzan dago oinarrituta. Probintziako 550.000 hektarea olibondoak dira eta urtero 600.000 tona olio ekoizten dira batez beste.

AZALERA
13.496 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
638 099 biztanle.

HIZKUNTZA
Andaluziera eta gaztelania

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Eider Solatxi, Aitor Fernandez de Pinedo, Koldo Rodriguez, Jon Catalan, Christian Alemany, Aitziber Alava, Endika Arribas, Jabi Asurmendi, Iñaki larrakoetxea, Elixarraitz Mendiguren, Gemma Corbella, Lander Ria, Cristina Gonzalez, Eunate Molinuevo, Andima Landaluze, Xabi Ugalde eta Alberto Martinez

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko · Urduña Orduña · Artziniegako Udala · Ausolan · Arrankudiaga Zollo Udala · Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala · Arakaldo · Okondoko Udala · Laudio Udala Ayuntamiento de Llodio · Amurrio

Grafik
Tellería 2, Laudio (Araba)
94 672 65 43// info@grafiksarea.com

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Eusko Jaurlaritza
Gobierno Vasco
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila